

CIC ENERGIGUNE - ENERGIA ALTERNATIBOEN IKERKETA KOOPERATIBOKO ZENTROA

Sozietatearen izena

Fundación Centro de Investigación Cooperativa de Energías Alternativas, CIC Energigune Fundazioa

IFK

G01241876

Izaera

Fundazioa.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Gutxi gorabeherakoa.

Sorrera

Fundación Vasca para el Desarrollo de Tecnologías Energéticas-ENERLAN fundazioa, CIC energiGUNE zentroaren sorburua, fundazio pribatu eta izaera iraunkorreko gisa sortu zuten jarraian zehazten diren patrono fundatzaileek, 1996ko urriaren 31n egiletsitako eskritura publikoaren bidez: Iberdrola, MCC, Sener, Idom, Babcock-Wilcox, Eusko Jaurlaritzako Industria Saila, Arabako Foru Aldundia eta Energiaren Euskal Erakundea (EVE-EEE). Fundazioen Erregistroan inskribatu zen, [1998ko irailaren 14ko AGINDUA, Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuarena, «Fundacion Vasca Para el Desarrollo De Tecnologías Energéticas» fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzekoa](#), betez.

2006ko urtearen azken aldera, Eusko Jaurlaritzak erabaki zuen Ikerketa Kooperatiboko Zentro (IKZ – CIC) berri bat sortzea energiaren teknologien alorrean, Euskal Autonomia Erkidegoko energia-politikari buruzko 3E-2010 Planaren eta Zientzia, Teknologia eta Ikerketa Planaren (PCTI 2007-2010) barruan, Energia Klusterraren Plan Estrategikoan detektatutako premiak aintzakotzat hartuta. ENERLAN Fundazioaren Patronatuak 2007ko uztailaren 9an egin zuen bileran, aho batez erabaki zuten sozietatearen izena aldatzea eta CIC energiGUNE deitzea, eta Estatutuak egokitzea IKZ berria gai izan zedin esleitutako helburu eta jarduerari heltzeko. Azkenik, IKZri energiaren esparruan behar zuen dimentsioa eta pisua emate aldera, Patronatuak erabaki zuen, halaber, enpresa eta organismo gehiago gonbidatzea Fundazioan sar zitezen, patrono nahiz lankide gisa.

Sail-atxikipena

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna.

EJSN

7219 Bestelako ikerketa eta garapen esperimentalak natura- eta teknika-zientzietan.

Fundazioaren xedea eta helburua

Fundazioaren helburua eta xedea da energiaren teknologien esparruan industriaren interesekoak izango diren ikerketa zientifikoak egiteko eta teknologia garatzeko jarduerak sustatzea eta garatzea eta beste entitate batzuekin koordinatzea bultzatzea Euskal Autonomia Erkidegoko energiaren estrategia teknologikoa sendotzeko.

Sailkapena kontabilitate nazionalen

Sozietate ez-finantzarioak.

Fundazio-zuzkidura


851.627 €

Fundazio-zuzkiduraren osaera

611.627€ jatorrizko ENERLAN fundaziotik etorriak dira eta gainerako 240.000 € 2008an jarri zituzten patrono berriek: Gamesa Energía, S.A.; Celaya, Empananza y Galdós Internacional, S.L.; Grupo Guascor, S.L.; eta Naturgas Energía Distribución, S.A.U.

Patronatuaren osaera

Izendatzen dituenak:	Patrono-kop./Guztira
EAEko Administrazio Orokorra	1/14
EVE- EEE	1/14
Arabako Foru Aldundia	1/14
Patrono pribatuak	11/14



2012ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	9.535.655 €
Ondare garbia	8.565.282 €
Salmentak eta merkataritza-jarduerako beste sarrera batzuk	0 €
Batez besteko langile-kopurua	35,13

Sozietatearen helbidea

Arabako Parke Teknologikoa, Albert Einstein, 48. CIC eraikina, 01510 Miñano (Araba).

Webgunea

www.cicenergigune.com